

anboto

**"Abeltzaintzaren ikuspuntutik
gure inguruko mendiak
abandonatuta daudela
esango nuke"**

Baserritarrak arduratuta daude. Euri faltak larreetan
belarrik ez haztea eta ura agortzea eragin du. Aitor Urien
artzain abadiñarrak uda zelan bizitzen dabilen azaldu du. / 2-3

IZURTZAKO JAIK / 12



ELORRIKO JAIK / 15



JAIALDIA

Urkiola Landa Garapenak Damarena antolatuko du hilaren 20rako Angurretan / 10



Antolatzaileak eta parte hartzaileak, Mañariko Angurreta espazioan.

FERIXA NAUSIKOAK



Jailetako aurkezpeneko argazki bat, Elorrioren.

EME elkarteak jaurtiko du Ferixa Nausikoetako txupinazoa, zapatuan / 20

"Abuztuan lehendik baturiko belarra eman diegu jaten ardiei, larrean ez zegoelako ezer"

AITOR URIEN TELLETXE
ABELTZAINA

Sikateak eta belar eskasiak eraginda, normalean lasaia den abuztua "kaos" bihurtu zaio Urieni

JOSEBA DERTEANO ABADIÑO

Udan sarritan berba egin da Euskal Herriko mendietako larreen eta abereen egoeraz, euri faltak belar eskasia eragin duelako hainbat tokitan. Ildo horretatik, abuztu atipikoa izan da Aitor Urien Telletxea abeltzainarentzat (Abadiño, 1992) ere. 330 ardiko artalde eta 20 behi ditu. Urtero egiten dituen artalde-mugimenduak mantendu ahal izan ditu, baina abuztuan ardiak Sagasta inguruko larreetan zeudenean, egunero eman behar izan die jaten, larreetan ez zegoelako belarrik.

Uda normal batean nora eramaten dituzu ardiak, eta zenbat denborarako?

Nire kasuan, iaz eta aurten berdin mugitu dut ganadua. 60 buruko artalde bat mendira eramaten dut beti apirilaren azkenean. Ekain erdian artalde nagusia eramaten dut mendira. Hilabetez mendian batzen dugu esnea, gazta egiteko. Uztaileko azken egunetan etxera ekartzen ditugu beti, uda ona zein txarra izan. Abuztua etxean ematen dute. Aharitzeko ekartzen ditugu. Orain, irail hasieran, ia ardirik gehienak berriro mendira eramango ditugu. Hantxe egongo dira azaro azkenenera arte. 20 bat urtean horrela egin izan dugu.

Orduan, zer da ohikotik aldatu dena? Uda normal doanean, abuztuan jatekoa gura adina daukagu Sagasta inguruko landetan. Landa bateko belarra jaten dutenean

beste batera pasatzen ditugu. Aurten zer pasatu da? Ekainean betiko moduan batu genuen belarrik. Udaberrian euria egin zuen eta belarra ondo etorri zen. Kontua da belarra batu genuenetik hona ez duela ia euririk egin. Beraz, ez da belar berririk etorri. Abuztuko egun batzuk landetako belarragaz pasatu genituen, baina, handik aurrera, batutako belarra ematen hasi gara. Beraz, ardiak betiko manejuan mantendu ditugu, baina belarra egunero emanda, kanpoan ez zegoelako ezer.

Sikateak zelan aldatu du zure eguneroko lana?

Ardiak aharitzeko sasoia da eta normalean abuztua prozesu hori zaintzeko sasoia izaten da. Edo ardiak landa batetik bestera pasatzeko, ur eta belar gehiago dagoelako, gerizpeagaitik... Egunero egiten dut buelta bat ardi multzo guztietatik. Hilabete lasaia izaten da eta artzain lan hori egitea asko gustatzen zait. Baina aurten ezin izan dut egin. Aurtengo lana hauxe izan da: goizetan landara joan, ardiak kortara eraman, jatekoa eman eta bueltan landara. Eta horrela ardi multzo askogaz. Beste ardi multzo bati jatekoa landara eraman izan diegu. Une batzuetan kaos itzela izan da; egun osoa bueltaka. Ardientzat ere ez da naturala sasoi honetan horrela ibiltzea.

Ezohiko mugimendu honek ardiaren aharitzeko eragingo duela uste duzu?



Aitor Urien bere ardiekin; irail hasieran mendira eramango ditu berriro.

Ez dakit. Hemendik bost hila-betera jakingo dugu seguru, ardiak erditzen hasten direnean. Oraingo, ardiak aharira normal hurbildu direla ikusi dut.

Alderdi ekonomikoan zelan eragin ditu?

Belarra betiko moduan egin dugu. Negura begira ere ohiko alpapa kantitatea erosi dut. Ez dut sikateagaitik gehiago erosi oraingo. Aurtengo aldaketa izan da abuztuan alpapa erosi behar izan dudala ardiei emateko. Ez dut askorik gastatu,

"Abuztua hile lasaia izaten da, baina aurten kaos itzela izan da. Egun guztian bueltaka ibili gara"

"Arazoei aurrea hartzen ahalegindu behar dugu; ez itxaron krisi bati arazoari heltzeko"

baina normalean izaten ez dudana gastatu da. Alpapagaz gainera, etxeko belarra eman diet eta hau ere ez da ohikoa.

Oraingo ez dut planteatzen ganaduarentzat jateko gehiago erostea. Kalkulatzen dut daukadanagaz helduko naizela. Gero igual egoera aldatu eta sekulako kolpea hartuko dut, batek daki. Ez dago seguru esaterik.

Egunotan ardiak mendira eramango dituzu berriro. Zer itxura hartzen diozu mendiari?

Mendiari kolorea apur bat aldatu zaio berriro. Harrokeriarik barik, orain hilabete baino kolore hobea du mendiak; gure ardiak egongo diren alderdian bai behintzat. Lainoa sartzen da, gaua egunetik egunera luzeagoa da, goizetan freskoago egiten du eta lanpar hori belarraren mesederako da. Ni nabilen lekuan belarra mantentzen dabilela esango nuke. Hala ere, ikusi egin beharko da zelan doan udazkena.

Sikateak ez dizu zuri bakarrik eragin, sektore osoari baino. Ildo horretatik, Bazka Mahaian sektoreak (zenbait eragilek osaturiko gunea) proposatutako bazka-erosketa bateratua egiteko aukera mahai-

gaineratu dute; hau da, handizka erostea. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburu Amaia Barredok, oster, orain egun gutxi esan du ez dutela bide hori bultzatuko, datozen hileetarako tokiko hornitzaileek nahikoa bazka dutela iritzita. Zer deritzozu?

Gai konplikatu da, baina Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren partetik gudanako utzikeria moduko bat ikusten dut. Nire ustez, Amaia Barredo sailburuak esandakoa ez da egokia, badagoelako beharri-zana daukan jendea. Nire kasuan, aurrerago esan dudana moduan, oraingo ez dut erosketa horretan sartzeko beharrik, baina hori nire kasu partikularra da. Badago jende bat oso txarto pasatzen dabilena, eta horri erantzun behar zaio. Horretatik, argi dago bazka-erosketa bateratua aurrera eraman behar dena, beharri-zana daukan jendeari laguntzeko.

Eta, horrez gainera, etorkizunera begira ere landu behar da gaia. Ez dugu krisi bat heldu arte itxaron behar. Denon artean ahalegina egin behar dugu erosi eta saltzeko modu batzuk lantzen. Horrelako plan

batek segurtasuna emango li-
guke, urtetik urtera eguraldia
aldatau arren. Baina une hone-
tan dugun errealitatea kontuan
hartu behar dugu, eta beharri-
zana daukan jendeari erantzun
behar zaio.

**Belar eskasiari buruz gabilta, bai-
na mendietako iturburu ur eska-
sia ere nabarmena da. Zelan eragin
dizu horrek?**

Etxean ez dugu txorrota itxi
beharrik izan; gure inguruan
diot, Durangaldean. Igual hori
ere helduko da, baina oraingoz
behintzat ez dugu itxi. Mendiko
egoera beste bat da. Mendian
ur gutxi egoteak eragin handia
du gudan. Mendian ura badago,
ganaduak eutsiko dio, neurri
baten barruan. Baina ur falta-
gaz ezinezkoa da. Toki batzue-
tan ura amaitu egin da eta kasu
horretan ez dago zereginik, bai-
na beste toki batzuetan, ni na-
bilen parajeetan kasurako,
iturburu emankorra dago, bai-
na ura ez dago ondo hartuta.
Eta ura ondo hartuta ez badago,
bere bidea aurkituko du eta
alferrik galduko da. Nik behiak
Artolan izaten ditut, sasoi ba-
tera arte. Udazkenean Amilla
eta Asuntza aldera pasatzen

ditugu. Aurten hilabete lehe-
nago eraman ditut gora, Artolan
ura falta zelako, iturburu eman-
korra dagoen arren.

Nire ustez, urari dagokionez
mendi aberatsak ditugu, baina
ez daude batere ondo aprobe-
txatuta. Beste adibide bat ipini-
ko dizut. Ardi multzo bat neukan
leku batean aska bat dago eta
han ura ez da sekula ere amai-
tzen. Ur asko dator beti. Aska
beterik egoten da, baina gainez-
ka egoten da eta litroak eta litroak
galtzen dira egunero. Zergaitik

**"Abuzturako alpapa
erosi behar izan
dut ardientzat.
Normalean izaten ez
dudan gastua da"**

**"Abeltzaintzaren
ikuspuntutik,
inguruko mendiak
abandonatuta daudela
sentitzen dut"**



Urien, Sagastako Anbe baserriaren ondoko larre lehorrean.

ez ipini beste bi-hiru aska segidan,
ura aprobetxatzeko? Esango nuke
gabeziak daudela azpiegitura
aldetik. Kontu horiek oharkabea
pasatzen dira sikaterik bako ur-
teetan, baina, sikatea badago,
orduantxe azaleratzen dira ga-

beziak. Beste mendi batzuetan,
Aralarren adibidez, ganadu ko-
puru handiagoa dago eta sikatea
dagoenez askak hutsik daude.
Urik ez dagoen seinale, jakina.
Baina behintzat askak ondo ipi-
nita daude, nik ikusi ditudan

argazkietan. Oro har, abeltzain-
tzaren ikuspegitik gure inguru-
ko mendiak abandonatuta dau-
dela sentitzen dut. Eta ez dago
urrun joan beharrik ideiak har-
tzeko. Inguruetan egin dutenari
begiratu besterik ez dago.

UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

2 KATEGORIA • 4 SARI

www.anboto.org

DURANGALDEKO
ARGAZKIAK

EPAIMAHAIAREN
SARIA
SMARTBOX BAT

ARGAZKI
BOZKATUENAREN
SARIA
XIAOMI
SMARTWATCH BAT

PARTE
HARTU

DURANGALDETIK
KANPOKO
ARGAZKIAK

EPAIMAHAIAREN
SARIA
ERRIGORAKO
OTZARA BAT

ARGAZKI
BOZKATUENAREN
SARIA
HARRIK
GABEKO SONY
ENTZUNGAILUAK

Miguel Piedraren legatua gogoan, San Fausto Zesta-punta Txapelketa hastear da Durangon

Zapatuan hasiko den lehiaketan, Piedrak utzitako ondarea gogoratuko dute

Joseba Derteano DURANGO

Abuztuan Miguel Piedra Gorosarri hil zen, Durangoko zesta-puntaren historiako pertsonarik garrantzitsuenetarikoa bat. Haren figura eta berak kirol honi egin-dako ekarpena gogoan, Piedraren omenezko memorial bihurtuko dute Kluben San Fausto Nazioarteko Txapelketa. Zapatu honetan lehiaketako 41. edizioa hasiko da eta datozen asteetan nazioarteko pilotaririk onenetarikoak batuko dira Ezkurdi Jai Alaietan.

Txapelketagaz Piedrak utzitako ondarea aitortu gura dutela adierazi dute Durango Jai Alai Zesta Punta Eskolako (DUJA) antolatzaileek ohar batean. "Piedra Durangoko zesta-puntaren historiako pertsonarik eragin-korrenetarikoa bat izan da. Bere bizitzaren zati handi bat kirol honen sustapenari eta garapenari eskaini zien. Ezkurdi Jai



lazko sari banaketa ekitaldiko irudi bat.

Alaiko jarduera profesionala bultzatu zuen, bertako harrobia indartu zuen eta erabakigarria izan zen Durango zesta-puntaren nazioarteko erreferente bihurtzeko hamarkadetan zehar. Horrez gainera, Durangoko Zesta

Punta Eskolaren sortzaile eta presidente izan zen 1990era arte, eta belaunaldi ugari prestatzen lagundu zuen", azaldu dute Durango Jai Alai Zesta Punta Eskolako (DUJA) antolatzaileek ohar batean.

Txapelketari dagokionez, zapatuan (irailak 5) hasiko da, 18:00etan. Urriaren 11ko finalera heldu arte zapatu arratsaldeetan eta domeka goizetan (10:30) jokatu dira partidua. Txapelketako irabazleen artean 1.500 euroko diru sariak banatuko dituzte. Lehiaketa hiru kategoriatan jokatu da: neskak, jubenilak eta 22 urtez azpikoak, kanporaketa formatuan.

Nazioarteko parte hartzea

Txapelketak nazioarteko izatera izango du. Lehenengoz, Zaragozako klubak etorriko dira. Mexikoko, Frantziako (Pau eta Hossegor) eta Bartzelonako taldeak ere batuko dira. Horrez gainera, Ipar Euskal Herriko hainbat klub entzutetsuk ere parte hartuko dute, hala nola Donibane Lohizunek, Bidartek eta Maulek.

Durangoko Zesta Punta Klubak presentzia nabarmena izango du. Nesketan Martina eta Igone arituko dira. Gazteetan Andoni Bediaga eta Mikel Urretabizkaia izango dira etxekoak. Mailarik gorenean, klubak bikote bi izango ditu lehian: Galder-Belar eta Alain-Kirmen.

Izaskun Aliende Tronperri dantza taldeko kidea hil da



Izaskun Aliende. TRONPERRI

J.G. DURANGO

Abuztuaren 17an Izaskun Aliende Ugarriza hil zen, Durangoko dantza munduan aurpegi ezaguna. Aliende urte askoan aritu zen lanean Tronperri dantza taldeko arduradun legez. Dantzazale amorratua izanik, ohikoa izaten zen bera dantza taldeko gazteei laguntzen ikustea, baita, jakina, dantzan ere. Irakaslea zen lanbidez, eta azken urteetan Durangoko Institutuan jardun zuen, DBHko eta Batxilergoko ikasleei historia klaseak ematen. 55 urte zituen.

Antzerkia, bakarriketak, musika eta opera, San Agustineko protagonistak

Aritz Maldonado DURANGO

San Agustin kulturguneak abendura arte izango duen egitaraua aurkeztu zuten eguaztenean. Ohiko moduan, askotariko eskaintza izango du, eta aurren, lehenengoz, opera emanaldi bat izango da bertan; All'Antica musika elkarteagaz elkarlanean, *Dido&Aeneas* opera ikuskizuna antolatu dute azaroaren 27rako. Arantza Arrazola koordinatzaileak Jaime Figueroa sabeliztunak azaroaren 15ean egingo duen emanaldia nabarmendu du. "Gaur egungo gaiak jorratzen dituzten *52 Hercios* eta *Dysphoria* emanaldiak ere azpimarratuko nituzke", azaldu du Arrazolak.

Euskarazko antzerkigintzaz gozatzeko aukera ere egongo da. Adibidez, Artedramak&Axut konpainiek *Nor naizen baneki* taularatuko dute, eta Lolak konpainia berriak *Zanbuila* lana plazaratuko du. Durangaldeko sortzaileen lanak ere egongo dira ikusgai: Judith Jauregi pianista durangarrak kontzertua

emango du abenduaren 13an; azaroaren 7an Abadiñoko Banarte taldeak *Cancún* antzezlan taularatuko du. Uda egitaraue borobiltzeko, emanaldi bi geratzen dira. Alde batetik, BarSanti konpainiak *Kodizia late night* emanaldia egingo du. Juanjo Otero iurretarraren eta Aritz Rodríguez *Oh-pera!* zirku ikuskizuna plazaratuko dute.



Angel Martin.

Pentsiodunen aldarriak kalean, astelehenetik aurrera

E.H. DURANGO

Durangoko Pentsiodunen Mugimenduak astelehenean, irailak 7, berrekingo die asteroko mobilizazioei. Udaletxeko plazan batuko dira, 12:00etan, "lehenastuzko eskariak" aldarrikatzen jarraitzeko; pentsio publiko duinen defentsa batetik, eta osasun eta zaintza sistema publiko eta kalitatezkoen defentsa bestetik. Era berean, egoera ekonomiko orokorrari ere erreparatuko diote, nazioarteko "gerrek", "eskuin muturraren hazkundeak eta Ormuzeko itsasarteko merkataritza bideen blokeoak" eragin zuzena dutelako ekonomian eta pentsioetan: "2026an, pentsioek %0,9ko galera izango dute, horiek 2,7ko igoera izan zuten arren, baita KPIaren azpiko igoerak izan dituzten soldatena ere", azaldu dute. Eusko Legebiltzarra ere kritikatu dute, hark atzera bota zuelako, EAJren, PSE-EEren, PPren eta Voxen botoekin, 145.000 herritarrek baino gehiagok bultzatutako Herri Ekimen Legegilea.

Durangoko musikariei profesionalizazioan laguntzeko deialdia

E.H. DURANGO

Euskal Herriko Musika Bulegoak eta Durangoko Udalak Musik(H) abian programa ipini dute martxan, tokiko proiektu musikalei profesionalizazio bidean laguntzeko. Lau proiektu sarituko dituzte guztira, eta irabazleek garapen programa bat jasoko dute opari, horri eskerrak musika industriari loturiko negozio ideiak, zerbitzuak eta egitasmoak era profesionalean lantzeko. Sari horietariko bat Durangoko proiektu musikal batentzat dago gordeta, udalak horretarako lankidetzan egin du-eta Euskal Herriko Musika Bulegoagaz.

Proiektu musikala deialdira aurkeztu gura dutenek irailaren 23ra arte dute horretarako epea. Besteak beste, proiektuaren deskribapena, helburu teknikoak eta artistikoak, eta motibazio gutuna erantsi beharko dute. Hautagaitzak aurkezteko inprimakia eta oinarriak www.durango.eus atarian kontsultatu daitezke.

LABUR-LABUR

Inausketak errekan

Durangoko Udalak eta URAk Mañaria erreka garbitu dute Andra Mari eta Montevideo artean. Eraikinen hormetatik irteten ziren hainbat zuhaitz ebaki dute, eta ibaiertzeko beste batzuk inausi dituzte. Lanek 7.800 euroko aurrekontua izan dute.

Bisita gidatuak udaletxean

Durangoko Udalak bisita gidatuak antolatu ditu udaletxearen historia, arkitektura, fatxada eta udal administrazioaren egunerokotasuna herriarrei ezagutarazteko. Lehenengo bisita zapatuan egingo dute, 11:00etan, euskaraz.

Sarasketa, Bilbao Athleticen

Lucas Sarasketa durangarrak Bilbao Athleticen jokatu du denboraldi honetan, Athleticek SD Eibarregaz akordioa lortu eta gero. Sarasketak 19 urte ditu eta ezker hegalean jokatzen du. Denboraldi-aurrea Eibarregaz egin du eta lehenengo jardunaldi bietako deialdian egon da.



Despedida egunean Saharako umeek, Hamadako Izarrak elkarteak kideek eta boluntarioek bat egin zuten. HAMADAKO IZARRAK

Hamadako Izarrak elkarteak ziklo aldaketa bat egin du Olazarren

Saharako ume errefuxiatuei egonaldiak eskaintzeari utziko diote Saharan bertan proiektuak garatzeko eta laguntzeko

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Hamadako Izarrak elkarteak ziklo bat zarratu du. Elkarteko kideek eta boluntarioek hamar urte bete dituzte eskualdean Saharako ume errefuxiatuentzat egonaldiak antolatzen, eta aurtengo uda izan da azkena. Hala ere, ziklo bat zarratu izanak ez du esan gura elkarteak bere jarduna etengo duenik, izan ere, umeentzat aterpetxerik edo egonaldirik antolatu ez arren, elkarteak Saharako herritarrei laguntzen jarraituko du. Proiektu berriak garatuko dituzte han.

Halantzik iragarri zuten, hain zuzen ere, elkarteak Garazi eta Izaro Etxebarria arduradunek Zaldibarko jaien atarian, txupinazoa jaurti baino lehenagoko egunetan: "Etapak bat amaitu dugu, baina elkarteak lanean jarraituko du. Asmoa da Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan bertan ere zenbait proiektu garatzea", zehaztu zuten. Joan zen asteburuan despedidako askaria egin zuten Olazarko aterpetxean. Bertan parte hartu zuten aurtengo udan egonaldia hango instalazioetan egin duten

umeek, boluntarioek, elkarteak arduradunek eta Zaldibarko herritarrek. Eta elkarteak arduradunek ondo merezitako omenalditxoa jaso zuten. "Uda ederra izan da. Pilak kargatuta ditugu hemendik aurrera Saharan proiektu berriak hasteko", esan dio Garazi Etxebarriak ANBOTOri.

Hamadako Izarrak elkarteak Axpeko aterpetxean hasi zen Saharako umei udako egonaldia eskaintzen, baina Zaldibarrera mugitu ziren gero, Olazarrera, futol zelai zaharreko instalazioetara. Han egin dituzte azken urteetako egonaldiak, 2023tik 2026ra. Era berean, Río de Oro Izurtzako aterpetxean eskaini du egonaldia aurtengo ere, eta Elorrioko Lajwad elkartearen eskutik hainbat umek igaro dute uda udalerrri horretako familien elkartsunean.

Hildako langilea gogoratu dute Iurretan



LAB

J.G. IURRETA

Enpresa batzordeak (ELA, LAB eta UGT) deituta, eguaztenean elkarretaratzea egin zuten Iurretako Smurfit Westrock lantegiaren aurrean, abuztuaren 14an gertaturiko lan heriotza salatzen. LABek azaldu duenez, heriotza zerk eragin zuen ikertzen dabilza oraindik. Hildako 51 urteko beharginak hilabete eta erdi zerman bertan lanean. Sindikatuek "prekaritatea" dagoela salatu dute.

Otxandioko udaletxean irisgarritasuna hobetu dute igogailua ipinita

A.B. OTXANDIO

Otxandioko udaletxean igogailu plataforma bertikala ipini dute, irisgarritasuna hobetzeko helburuagaz. Joan zen ekainetik dago martxan azpiegitura berria, eta udalak 42.000 euro inguruko inbertsioa egin du lan horiek gauzatzeko. Udal arduradunen esanetan, modu horretan herritarrek "une oro udaletxean sarbide librea izatea" bermatu dute.

Otxandioko Udalak aurtengo udal aurrekontuan jasotako inbertsio nagusietako bat izan da udaletxean igogailua ipintzea. Proiektua gauzatu, oztopo arkitektonikoak gainditzea lortu dute.



Jai Batzordeak egindako agerraldia.

Iurretako Jai Batzordeak egitarau zabala prestatu du sanmigeletarako

Nobedade lege, banakako harri zulatzaileen lehiaketa, mus txapeketa eta auto klasikoaren topaketa iragarri dituzte

A.B. IURRETA

Iurretako Jai Batzordeak prestatu dagoeneko sanmigela ospatzeko egitaraua. Asteon egindako agerraldian, adin guztietako herritarrentzat jai giroaz, dantzaz eta kirolaz gozatzeko moduko ekitaldiak iragarri dituzte. Iurretaren 28an emanango diete ondoetorria jaiei, Montoitik jaurtitako txupinazoagaz. Egun horretan jasoko dute Doniel Atxa. Hala ere, aurretik ere egongo da zertaz gozatu. Irailaren 12rako antolatutako sortzaile feministen azokak abiatuko du egitaraua. Jaiak urriaren 4an amaituko dira.

Nobedadeen artean hauetxek aipatu dituzte: irailaren 20an banakako harri zulatzaileen Bizkaiko txapelketa eta erakustaldia, eta 25ean mus txapelketako finala. Tabernariekin antolatutako txapelketak hile osoa

iraungo du. Bestalde, irailaren 27an auto klasikoaren topaketa egingo dute lehenengoz. Tradizio handiko ekitaldiek osatuko dute egitaraua, hala nola Porrotx eta Mari Mototsen ikuskizunak eta Zaldai Mendi taldeak antolatutako mendi martxak. Aurtengo, gainera, mendi taldeak ibilbide ertaina ere prestatu du, Mugarrikolantatik Marmolera. Paella txapelketa eta kontzertuak ere egongo dira; besteak beste, Zeker eta Euskoprincess igoko dira oholtzara, Urriaren 3ko Mozorro Egunean Apirileko Feria egingo dute Iurretan, eta bezperan Pescito gaua egingo dute.

Emma Aguilarrek (Torontile) sortu du kartela. Kartelean, Doniel Atxaren azpian eskailerak irudikatu ditu, "herrira sartzeko gonbidapena egiten dutenak". Jaiagaz loturiko elementuekin osatu du lana.

Juan Mari Areitiori esker oneko ekitaldia egingo diote Iurretan

M.Z. IURRETA

Durangaldeko Bertso Eskolak antolatuta, *Basamakatzak urdinsagarrari: Areitiori esker onez* ekitaldia egingo dute, "bere lana eta bertsolaritzaren egindako ibilbidea aitortzeko eta eskertzeko ekitaldia", iragarri dutenez. Irailaren 19an izango da, Iurretako plazan, eta hainbat gonbidatu berezik parte hartuko du.



Juan Mari Areitio.

Zornotzako merkataritza bultzatzeko asmoz, Amorebono kanpaina martxan da

Kanpainak abenduaren 28ra arte iraungo du eta 32.000 bonu emango dituzte



Amaia Aurrekoetxea zinegotzia.

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Aste honetan Amorebono aurkeztu dute, Zornotzako merkataritza eta ostalaritza bultzatzeko kanpainaren edizio berria. Kanpainak abenduaren 28ra bitartean iraungo du, eta nobedade legez bonuen erabilera eta kudeaketa erraztuko dituen web plataforma aurkeztu dute. Orain artean, kutxazainetan atera behar izaten ziren bonuak, baina orain

dendetan bertan egin ahal izango da kudeaketa. "Kudeaketa

"Orain arte 67 establezimenduk bat egin dute Amorebono proiektuagaz"

sistema berriagaz beste urrats bat eman dugu, Amorebono denontzat errazagoa eta erosagoa izan dadin. Herritarrek bonuak zuzenean erabili ahal izango dituzte kanpainari atxikitako establezimenduetan, aurretiaz kutxazainetara joan beharrik barik; horrela, sortzen ziren ilara luzeak ekidingo dira, eta, era berean, saltokiek kanpaina kudeatzeko tresna arinagoa izango dute eta gura dutenean batu ahal izango dira", azaldu du Amaia Aurrekoetxea zinegotziak. Orain arte 67 establezimendu batu dira kanpainara, eta 32.000 bonu eskainiko dituzte. 16 urtetik gorako herritarrek erabili ahal izango dituzte; ba-

koitzak sei, gehienez. Hainbat urteren ondoren, errota dagoen ekimena da Amorebono. "Herritarrek eta udalerriko establezimenduek asko espero duten kanpaina da Amorebono. Ekimen honen bitartez, tokiko kontsumoa bultzatzen jarraitu gura dugu, gure saltokiak eta ostalaritza babesteko eta gertuko negoziatan erosten duten zornotzarrei aurrezteko aukera eskaintzeko", gehitu du Aurrekoetxeak.



'Ekialdea' erakusketako irudi bat.

'Ekialdea' erakusketa ikusgai egongo da Zelaietan irailaren 13ra arte

A. M. ZORNOTZA

Zelaietako erakusketa gelak Pintzelak elkarte zornotzarri loturiko proposamen bi hartuko ditu irailean. Programazioa Mari Tere Ugarriza Rekalde elkarte kideari eskaintako erakusketa monografikoagaz hasiko da. Irailaren 1etik 13ra bitartean, Rekalderen *Margotzea izan da nire ametsa txikitatik* erakusketako lanak egongo dira bertan. Artistak elkarte egindako ibilbidea aitortzeko eta haren lana gertuagotik eza-gutzeko aukera eskaintzeko asmoagaz antolatu dute erakusketa.

Irailaren 14tik aurrera, Pintzelak elkartearen *Ekialdea* talde erakusketak hartuko du lekukoa; irailaren 26ra arte egongo da ikusgai. Erakusketa osatzen duten lanen bitartez, elkarteak "denbora geldiarazi eta kolorearen bitartez kultura-zubi bat eraikitzea" proposatzen du elkarteak. Erakusketa biak 08:30etik 21:30era egongo dira astelehenetik barikura, eta 10:00-14:00 eta 16:00-20:00 ordutegian bisitatu ahal izango da zapatueta. Dometan, bisitariak arratsaldean joan beharko dute, 16:00etatik 20:00etara.

Berriztarrek hitzordu bikoitza izango dute Trakamatrakagaz irailean

A. M. BERRIZ

Jon Urrutia musikariak doinu eta erritmo desberdinak eskaintzen ditu Trakamatraka proiektuaren bitartez, eta dena material birziklatua erabilita. Berriz hitzordu bi izango ditu datozen egunetan. Lehenengoa

tuaren bitartez, eta dena material birziklatua erabilita. Berriz hitzordu bi izango ditu datozen egunetan. Lehenengoa



Jon Urrutia, Trakamatraka.

irailaren 10ean izango da, Lorategian, 17:00etatik 19:00etara. Urrutiak material birziklatuz egindako musika-tresnen tailerra eskainiko du eta gazteenek aukera paregabea izango dute musikara modu dibertigarrian hurbiltzeko. Mangera, maionesa tapa edo tutuekin egindako instrumentuekin, parte hartzaileek hainbat doinu egingo dute.

Bestalde, Urrutiak berak beste ikuskizun bat ere egingo du irailaren 17an: *Matraka Culinary Center*, hain zuzen ere. Urrutiak bere pasio biak azaltzen ditu emanaldi honetan: musika eta sukaldaritza. "Sanbatik rapera, punktetik indiako giro-soinueta, lapikoak, paella ontziak, azenarioak, makarroiak, kuia-txoak, erratak eta sukaldeko koilarak izango dira soinu banda bitxiaren tresnetariko batzuk", azaldu du Urrutiak.

Atxondoko antzerki tailerrean izena emateko epea zabaldu dute

A. M. ATXONDO

Aurten ere, herriko gazteak antzerkiaren mundura hurbiltzeko tailerrak egingo dituzte. Hitzordua egunetan izango da, 17:00etatik 19:00etara, eta aurten ere Garazi Magunagoitia antzezle atxondarrak gidatuko ditu saioak. Iaz sortu zuten antzerki tailerra Atxondon, herriko Kultura Mahaiaren eskutik, eta orduan ere Magunagoitia aritu zen gidari. Atxondarra Karrika antzerki taldeko kidea da, besteak beste. 7tik 16 urtera arteko gazteei bideratua dago tailerra, horien artean antzerki zaletasuna pizteko, hain zuzen ere. Magunagoitiaren berbetan, antzeztuta pizten

da antzerkizaletasuna, jolasten hasita. Hain zuzen ere, jolasteko grina hori eskaintzeko asmoagaz ekin zioten iaz antzerki tailerrari, eta, iazko harrera ona ikusita, Atxondoko Udalak eta Atxondoko Kultura Mahaiak aurten ere tailerra eskaintzea pentsatu dute. Iaz 10etik 13 urtera arteko gazteei zuzenduta egon zen, baina antolatzaileek adin tarte hori zabaltzea pentsatu dute aurten.

Parte hartzaileek hilean 15 euroko kuota ordaindu beharko dute. Interesa dutenek liburutegira joan behar dute izena ematera. Internetez ere eman daiteke izena, karteletan dagoen QR loturaren bitartez.

DURANGO

72,36€

Ikasturte osoa
+
azterketa-deialdi bi

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

ZIURTAGIRI OFIZIALA

Deutsch · English · Euskara · Français

MATRIKULA ZABALIK (on-line)

Talde presentzialak eta erdipresentzialak

- 1. fasea irailaren 1etik 16ra, biak barne
- 2. fasea irailaren 17tik urriaren 5era, biak barne

**Eman
izena**

Zubiaurrea Kalea, 1, 48200 Durango
015054aa@hezkuntza.net · 946 81 66 45
www.eoidurangoheo.hezkuntza.net





Matias Romero, Vancouver tabernako arduraduna. MARIA MENTXAKA

Lankideek, etxekoek eta auzotarrek agur festa hunkigarria egin diote Matias Romerori

40 urtez izan da Traña-Matienako Vancouver taberko arduraduna. Zapatuan erretiroa hartu zuen

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

40 urtez Traña-Matienako Vancouver tabernako gidaritzan egon eta gero, Matias Romero 'Mati'-ri erretiroa hartzeko ordua heldu zaio. Joan zen zapatuan zabaldu zuen azkenengoz taberna, eta etxekoek, lankideek eta auzotarrek agur festa hunkigarria egin zioten.

Matias Romerok bere azkenengo laneguna zuen zapatukoa, eta goizero legez hasi zuen eguna. Baina eguerdian, ezustean, taberna lepo bete zitzaion. Ezus-

tekoa izan zen berarentzat, baina ez bere ingurukoentzat. Etxekoek, lankideek eta zenbait auzotarrek egunak eman dituzte 'Mati'-ri agur festa antolatzen.

Oso hunkigarria izan zen. 40 urtez Vancouver tabernako barraren atzean egon den arduradun jator baina serioa hunkitu egin zen, eta baita tabernara joan ziren etxeko eta auzotarrak ere. Izan ere, lau hamarkada hauetan Vancouver taberna eta bertako langileak Traña-Matienako egunerokoaren parte izan

dira, eta zapatukoa horren adibide argia izan zen; auzo baten eskertza jaia izan zen.

Trikitilariek eman zioten hasiera agur jaiari. Ondoren, dantzaren egin zioten, eta ondo mezeztako txapela eman. Egunari amaiera borobila emateko, DJ batek musika ipini zuen.

Orain, erretiroa hartzeko eta disfrutatze momentua heldu zaio Vancouverreko arduradunari. Bien bitartean, Traña-Matienako auzotarrek nabaritutako dute 'Mati'-k utzitako hutsunea.

M.Z. ABADIÑO

Mallabiko Zengotita auzoko jaien barruan lagunarteko txirrindulari lasterketa egin zuten zapatuan, eta giro paregabea egon zen. Lariztik Zengotitarako kronoigoeran 17 parte hartzaile egon ziren guztira. Txirrindulariak txanda bitan irten ziren eta zazpi denborarik onenak lortu zutenek finala jokatu zuten. Irabazlea Ekain Biritxinaga izan zen, 8:31ko denboragaz. Bigarren postua Ekaitz Barrainkuak lortu zuen, 8:33ko denboragaz. Hirugarren denborarik onena, 8:35, Raul Rodriguezek egin zuen.

Nagusien lasterketaz gainera, gaztetzoen proba ere egon zen. Guztira, 5 urtetik 10 urtera arteko zortzi gaztetzok parte hartu zuten. Gaztetzoen kasuan, bakoitzak ahal zuen tokiraino igo zuen.



Muntsaratzeko jaietako iazko argazki bat.

Paella txapelketa, musika eta askotariko ekintzak Muntsaratzen

Irailean jai giroa izaten da nagusi Abadiñon, herriko hainbat auzotan jaiak ospatzen dituzte eta. Gaur Muntsaratzeko jaiak hasiko dira

M.Z. ABADIÑO

Irailagaz batera jai giroa nagusi da Abadiñon, herriko hainbat auzotan jaiak ospatzen dituzte eta. Irailaren 2an San Antolineko jaiak ospatu zituzten eta gaur Muntsaratzeko jaiak hasiko dituzte. 19:00etan lehertuko da festa, Donien Atxa jasota eta Talde Batuak dantza taldearen saioagaz. Iluntzean Ustekabe txarangak girotuko du auzoa eta gauean Korroixion eta Lionels taldeen kontzertua egongo da. Zapatuan puzgarriak, paella eta tortilla txapelketak, bits festa, Gaitegun erromeria eta DJ Mo egongo dira, besteak beste.

Jaiei amaiera emateko, irailaren 6an, umeentzako tailerrak, herri kirolak, Gar-en kontzertua, maleta siku, futbito txapelketa eta Aukeran dantza ikuskizuna egongo dira.

Muntsaratzeko jaiak domekan amaituko diren arren, jai giroak jarraitu egingo du Abadiñon. Irailaren 7an eta 8an Andra Mari jaiak ospatuko dituzte. Irailaren 7an, 18:30ean, txopoa jasoko dute, 19:00etan dantzariak egongo dira, eta, ondoren, Alaia Martin eta Gorka Pagonabarraga bertsolariak saioa egingo dute. Bertaratzen direnentzat luntxa ere egongo da. Bestalde, irailaren 8an, 12:00etan, meza egongo da, eta 12:30ean luntxa.

'Mexikotik Mendiolar'

Bestalde, Errekatxo auzo elkar-teak ekimen berezia antolatu du irailaren 5erako, *Mexikotik Mendiolarra* arratsaldeko parranda mexikar giroan. 19:00etatik aurrera bertaratzen direnek janari eta edari mexikarrak dastatzeko aukera izango dute. DJ batek musika ipiniko du.

Giro paregabea Zengotita auzoan egindako lagunarteko kronoigoeran




Kronoigoeraren hasieran parte hartzaileen argazki bat. ZORION ALBERDI

Julen Saenz de Ormijana, Europako txapeldun

J.D. GARAI

Garain bizi den arabarrak garaipena lortu du Europako trial bike txapelketan, Trial 26 mailan. "Oso pozik nago lortutako emaitzagaz. Oso proba gatxa izan zen. Oraindino sinetsi ezinik nabil", azaldu du Saenz de Ormijanak. Lehia abuztuko lehenengo astean jokatu zen, Frantziako Valbergen.



Saenz de Ormijana, erdian.

Zenbat ezagutzen duzu Durango?

Parte hartu gure lehiaketan eta galderarik
gehien asmatzen dutenen artean...

Otordu bat zotz egingo dugu
Gaztelua jatetxean 🍷💖

EDONORK PARTE
HARTU DEZAKE!

Irailaren 10etik 17ra

SARTU, JOKATU ETA IRABAZI OTORDU BAT!

Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE


IRAILEKO ZOZKETAK



Alcamporen eskutik Euskal produktuz osatutako otzara.



BASA take away jatetxeko KMO haragidun eta ogi artisaudun hamburgesa eta bi saltsadun patata errazioa opari. Bariku eta zapatu gauean gozatzeko.



Xiberu taberna (Zornotza) bi gosari bikoitz.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. (Durango)

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!



Mañariko Angurreta espazioak Damarena jaialdi berria hartuko du irailaren 20an

Urkiola Landa Garapena da antolatzailea. Haize-Arrosak kontzertua emango du

J.D. MAÑARIA

Urkiola Landa Garapenak (ULG) Damarena jaialdia antolatu du irailaren 20ko domekarako. Eki-mena Mañariko Angurreta espazioan izango da; doakoa da eta musika, artea eta bertako produktuak uztartuko ditu. "Damarena lurraldeari begiratzeko beste modu bat da. Gure helburua ez da bakarrik ekitaldi bat antolatzea, Durangaldeak eskaintzen dituen baliabideak, espazioak, produktuak eta kultura bisitariei erakustea baino", azaldu zuen aurkezpenean ULG-ko presidente Erramun Osak.

12:00etan, Iratxe Jaio eta Klaas Van Gorkum artisten *Litologika* izeneko instalazio berria estreinakoz bisitatzeko aukera egongo da. Artistek eurek gidatuko dute bisita. Bisitarako, aurretiaz izena eman beharko da Angurretako webgunean.

19:00etan, Berrizko Haize-Arrosa taldeak kontzertua emango du. "Guretzat oso berezia da horrelako leku batean jotzea", azaldu zuen taldeko kide Eneritz Gorritxategik. "Sorpresaz" eta "kolaboratzailez" beteriko ikus-

kizuna izango dela aurreratu zuen. Gainera, tokiko produktuen dastatze saioa ere egongo da. Bertaratzea errazteko, arratsaldean etengabeko autobus zerbitzua egongo da Mañariko plazatik Angurretaraino.



Urkiola Landa Garapeneko, Haize-Arrosako eta Angurretako kideak, aurkezpenean.

Elorrioko Udalak Kurutziagako gurutzearen zaharberritzea amaitu du

J.D. ELORRIO

Udalak Kurutziagako gurutzearen zaharberritzea amaitu du abuztuan. 28.329 euroko inbertsioagaz, 1522ko hareharrizko monumentu historikoan hainbat esku-hartze egin du. Harria garbitu eta tratamendua eman diote, eta argiztapen sistema berriztu dute. "Lurreko fokuetan ura sartzen zenez, deskonektatu

egin behar izan ziren, segurtasunagaitik. Foku horiek guztiz aldatu dira, gurutzeak gaueko orduetan argi berezia eta ikusgarria izan dezan berriro ere", azaldu du udalak ohar batean. Esku-hartze hau 2023an hasitako ibilbidearen beste mugarri bat da, Santa Anako eta Txanberiko gurutzeetan egindako lanen ondotik.



Harria garbitu, tratamendua eman eta argiztapena berriztu dute.

Mugarrak Saibigain-Iturriotz ehiza paseak zozkatuko ditu irailean

J.D. IZURTZA

Izurtzako eta Mañariko Mugarra elkarteak Saibigain-Iturriotz pase lerroko ehiza postuen zozketak egingo ditu Mañariko Herriko Tabernan.

Urriko baimenei dagokienez, zozketa orokorra irailaren 11n izango da, 20:00etan. Zozketaren ondoren zazpi eguneko epea dago baimenak jasotzeko. Bazkideei bideratutako zozketa irailaren 15ean egingo dute, 19:00etan. Eskaerak egiteko azken eguna hilaren 9a da. Eskaera orriak Izurtzako Antonio Txikin batu edo utzi daitezke. Adierazitako egunetan jaso ez diren baimenak eskatzen duen lehenengo ehiztariari emango zaizkio, irailaren 21etik aurrera.

Azaroko pase lerroko zozketei dagokienez, zozketa orokorra irailaren 25ean izango da, (20:00) eta bazkideena urriaren 20an (19:00). Eskaerak irailaren 23ra arte aurkeztu daitezke, elkarreko kideek zehaztu dutenez.

Irailaren 13ra arte ipini daitezke argazkiak ANBOTOk lehiaketan

Maialen Zuazubiskar DURANGALDEA Uda sasoia momentu paregabea izaten da argazkilari senari bidea emateko. Hori baliatuta, ANBOTOk Udako Argazki Lehiaketa antolatu du eta irakurleei gonbit egiten die bertan parte hartzeko. Irailaren 13ra arte dago aukera argazkiak *anboto.org* webgunean ipintzeko edo 688 635 041 zenbakira bidaltzeko. Webgune bidezko

botoa emateko aukera irailaren 14tik 21era egongo da. Durangaldeko argazkirik onenak asteburu pasa joateko smartbox bat irabaziko du, eskualdetik kanpoko argazkirik onenak Errigorako otzara bat, botorik gehien duen Durangaldeko argazkiak Xiaomi Smartwatcha eta eskualdetik kanpokoak haririk bako Sony entzungailuak.



Aurtengo lehiaketako argazki bat.

POLITIKAN

Durango, 3 urte norabiderik gabe



HERRIAREN ESKUBIDEA
- INDEPENDENTEA

Legegintzaldiko azken urtean balantze triste bezain argiarekin sartu gara. EAJk eta PSOEk 3 urtez gobernuan egon ondoren, Durangok egunerokotasuna kudeatzeko legealdia bizi du, baina herri proiekturik eta norabiderik gabe. Bere lehen erabakiek bidea markatu zuten: alkatearen soldata %66 igo zen. Gaur egun gora egiten jarraitzen du, eta dagoneko 83.000 eurotik gorakoa da. Ondoren, zerga-igoerak etorri ziren, hala nola etxebizitzaren OHZ, pertsona batzuentzat bikoiztu zena.

Gehiago ordaintzen dugun bitartean, arazo gehiegi espero ditugu. Auzo abandonatuak eta gero eta zikinagoak. Zerbitzu gero eta okerragoak: Durango Kirolak, duela 2 urte iragarritako inbertsioen zain. Agian adibiderik onena Kultur Etxea da. 1,5 milioi euroko diru laguntzari uko egin zioten. Hiru urte geroago, Durangok Kultur Etxerik gabe jarraitzen du. Bitartean, aurrera egiten ikusten ditugun proiektu bakarrak aurreko legegintzaldikoak dira. Paradoxikoa da: 2022an EAJk "planifikazio falta" eta "ezerezean geratzen diren titular handiak" kritikatu zituen. Gaur egun, hitz horiek ondo deskribatzen dute beren kudeaketa. Durangok hurrengo titularretik haratago begiratzen duen gobernu merezi du. Etxebizitzak, mugikortasunak, kulturak... plangintza eta etorkizunerako ikuspegia behar dute. Gobernatzea ez baita egunerokoan bizirautea, zer Durango nahi dugun jakitea baizik.

DURANGALDEA ASTEON

Durangoko Jai Berri taberna itxi dute, 25 urteko ibilbidearen ondoren

DURANGO Anouchka Dearmanek eta Roger Dearmanek 25 urteko ziklo bati amaiera eman zioten abuztuaren hasieran. 25 urtez Durangoko Jai Berri tabernako arduradun izan diren neba-arrebek taberna ixteko garaia heldu zaiela esan zioten ANBOTori. "Hasieran ipini genituen helburuak bete ditugu, eta uste dugu belaunaldi berriei bidea emateko garaia heldu zaigula", azaldu zuten. 25 urtean, Dearman neba-arrebek hainbat bizipen izan dute barraren atzealdean, eta tabernari eskerrak sorturiko hartu-emanen falta igarriko dutela aitortu zuten. "Jai Berriri eskerrak, urte hauetan hartu-eman asko sortu dugu, jende asko etorri da gurera; familia bereko lau belaunaldi ere ezagutu ditugu. Zoragarria izan da", gehitu zuten.



Roger eta Anouchka Dearman.

'Neskak trail munduan' berbaldia irailaren 5ean Angurreta Harrobian

MAÑARIA Mañaritik Atxetara mendi lasterketa irailaren 5ean aurkeztuko dute Angurretako Harrobian. 10:30ean izango da. Horren ondoren, Neskak trail munduan berbaldia egongo da. Mahai-inguruan Oihana Azkorbebeitiak, Ainara Urrutiak, Garazi Sampedrok eta Ainhoa Lendinezek parte hartuko dute.



GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa / Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902



Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.

Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale





IZURTZAKO JAIK 2026





IZURTZAKO JAIK 2026

IRAILAK 4

- 20:00 Txupinazoa eta poteoa plazan. Ku-klux fanfarreagaz.

IRAILAK 5

- 11:30-13:30 Motoen erakustaldia Frontoian/ parkingean.
- 12:30 Paella lehiaketa.
- 14:30 Platerak aurkeztea.
- 15:00 Herri bazkaria.
- 18:00 Bingoa.

IRAILAK 6

SANTA AGEDA EGUNA

- 10:00 Kalejira Jaizalegaz.
- 12:00 Mendigain dantza taldea.
- 12:45 Umeentzako poneyak.
- 14:30 Herri bazkaria
- 16:30 Txoborro magoa.
- 18:30 Lotxo taldea.

IRAILAK 8

ERDOITZA EGUNA

- 10:00 Kalejira Jaizalegaz.
- 16:00 Haur parkea, plazan.

IRAILAK 11

GERTUFEST SANTO TOMAS PARKEAN

- 17:30ETIK AURRERA Taberna, artisau azoka, EKO-karrusela, Arku-tiroa.
- 18:00-20:00 Cia Demián (mimoa) eta Harri Orri Ar txapelketa.
- 19:00 Supitiki Show antzerkia.
- 20:00 Sua Show (Anjia & Cia).
- 21:00 LDF Mambo Express (Kunbia).

IRAILAK 12

SANTO TOMAS EGUNA

- 10:00 Kalejira JAIZALEgaz.

GERTUFEST SANTO TOMAS PARKEAN

- 11:00ETATIK AURRERA Taberna, artisau azoka, EKO-karrusela, Yoga tailer irekia (Patagonia Hatha Yoga), Cia Demián (mimoa), Zirkua.
- 12:00 Kriskitin dantza taldea.
- 12:30ETATIK AURRETA Salsa tailer irekia eta DJ-a.
- 19:00 Tortilla txapelketa frontoian.
- 20:30 Tortilla aurkeztea.
- 21:30 Herri afaria.
- 22:30 Xaibor.

IRAILAK 13

- 11:30 Arraza libreko ardi-txakurren erakustaldia (frontoi atzeko belardian).
- 13:30 Igel txapelketa, plazan.
- 14:30 Jubilatuen bazkaria.
- 17:30 Mus txapelketa Argintxun* 'Mus: Gehienez 16 bikote. 3 jokotara.
- 17:30 Partxis txapelketa plazan*. "Partxis: Gehienez 16 bikote. 2 fitxara.



LUCIA MERUELO

ARTISAUTZA AZOKA Gertufesteko egun bietan artisautza azoka egongo da Santo Tomas parkean. Irailaren 11n Filme Tailer, June Baonza, Lur-Alai, Eskuarte, Kiribilak, Harri Koskor eta Barock postuak egongo dira. Irailaren 12an Amalur, Arthika, Irene O, Irama Nineu, June Baonza, Torontile, Harri Koskor, Eskuarte, Barock eta Gigil Design postuak egongo dira.



LUCIA MERUELO

DANTZA SAIOAK Jaietan hainbat dantza saio izango da. Domeka honetan Izurtzako Mendigain taldeak saioa egingo du Santa Ageda ermitaren inguruan. Irailaren 12an Kriskitinen txanda izango da, Santo Tomas parkean.

HERRIKO TABERNA

URDAIAZPIKOA
SALAMANCAKO TXORIZOA
SOLOMO IBERIKOA
SALTXITXOIA
GAZTA
ERRAZIOAK

Tel.: 946 808 908
Elizalde auzoa, 20
IZURTZA

BASERRIKO OGIA

ANTONIO TXIKI
CASERIO BERRITZE

Berrizetxe baserria
Elizalde, 32 - Izurtza
Tel: 94 681 78 21

arbere

Aterik ate gasoleo banaketa

946 20 40 45
630 05 89 10
www.arbere.com

J.D. IZURTZA

Izurtzako jaiak gaur arratsaldeko txupinazoagaz hasiko dira. Urtero legez, herrigunean ez ezik, herriko beste hainbat txokotan ere biziko da jai giroa, hala nola Santa Ageda ermitaren inguruan eta Santo Tomas parkean.

Zapatua motoen erakustaldi batez hasiko dute. Ondoren, jaietan arrakasta handia izaten duen paella txapelketa hasiko da. Domekan Santa Agenda ermitaren inguruan izango da jaieguna. Mendigain dantza taldeak saioa egingo du, eta, ondoren, urteroko ohiturari eutsiz, denek elkarregaz bazkalduko dute. Arratsalden Txoborro magoa izurtzarrak gertuko magiagaz txunditzen ahaleginduko da. Azkenik, Lotxoren erromeriak dantzan ipiniko ditu ermitaren bueltan dauden herritarrak. Astelehenean, Erdiizako Egunean, goizean kalejira egongo da Jaizale taldeagaz, eta arratsaldean haurrentzako parkea, plazan.

Gertufest

Jaietako bigarren asteburuko ekimen asko Santo Tomas par-



Gertufest jaialdiko ekimenetarikoa bat dantza saioa izaten da.

Izurtzarrak jaietan murgilduko dira gaur, arratsaldeko txupinazoagaz batera

Domekan Santa Ageda ermitaren bueltan ospatuko dituzte jaiak

kean izango da. Gertufest Batzordeak, udalak eta Korrala Sormen Guneak elkarlanean, artea, kultura eta festa uztartzen dituen Gertufest jaialdiaren 5. aldia egingo dute parkean, irailaren 11ko arratsaldean eta 12ko

goiz-eguerdian. Urtea joan eta urtea etorri egonkortzen joan den ekimena jaietako ezinbesteko osagai bihurtu da, bai parkean sortzen den giroagaitik, bai eskaintzen duen ikuskizun kopuru anitzarengaitik. Musika,

formatu desberdinetako antzerkiak, umeentzako ikuskizunak... aurtur ere denerik antolatu dute.

Egun bietan artisautza azoka egingo dute, arropen, bitxien eta antzerako postuekin, eta taberna bat ere ipiniko dute

freskagarri eta abarrekin. Egun bietan Demien Costa mimoa izango dute gonbidatu. Aktore, mimo eta clown argentinarrak pantomima eta umorea uztartzen ditu bere ikuskizunetan.

Beste ikuskizun interesgarri bat irailaren 11n izango da, 19:30ean: Supituki Show, euskarazko inprobisazio-antzezlanak. Istorioak ikusleek idatzitako esaldi eta iradokizunetatik abiatuta sortzen dituzte, unean bertan; horrela, ikusleak ikuskizunaren funtsezko parte bihurtzen dira. Egunean zehar Harri Orri Ar esku-joko txapelketa ere egingo dute. Hurrengo egunean, 12an, berriro azoka egingo dute eta beste ekitaldi batzuk ere egongo dira: clown ikuskizuna, salsa eta yoga klase irekiak, euskal dantzak Kriskitin Dantza Taldearen eta Jaizale txistulari taldearen eskutik, dantza garai-kidea Gertu kolektiboaren eskutik... Piknik lehiaketa ere egingo dute.

Jaiak irailaren 13ko domekan amaituko dira. 11:30ean, Udalak eta Artxate elkarteak antolatuta, arraza libreko ardi txakur erakustaldia egingo dute pilotalekuaren atzeko belardian.

**Ondo pasa
Izurtzako
jaietan!**

📍 BI-623, 48213 IZURTZA 📍 BI-623, 48210 OTXANDIO

GARATE

Mañondo
Baserria, 10
Tel.: 946 815 600
48213 Izurtza

RECYTRO

BILKETA ZERBITZUA
INSTALAZIOEN ERAISTE LANAK
TROKELAN SUNTSITZE LANAK

Elizalde auzoa, 47 - 48213 IZURTZA
Tel.: 946 818 979 - Mov.: 639 438 197
info@recytro.net - www.recytro.net

FOSECO

**GALDAKETA ETA
SIDERURGIARAKO
PRODUKTUAK**

Foseco Española, S.A.
Elizalde auzoa, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)
Tel. 94 620 25 00 / Faxe. 94 620 37 73
115 Posta Kubxa - 48200 Durango (Bizkaia)

VESUVIUS

Azkonizaga

Edari banaketa

GARAGARDOAK · ARDOAK
LIKOREAK · ESNEA
URA · FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia)
Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58



ELORRIOKO JAIK 2026



**ERASO MATXISTA,
TRANSFOBO ETA
HOMOFOBORIK EZ**

688 86 52 94
Salatzeko eta informazioa jasotzeko telefonoa

**SARETU,
ANTOLATU,
ELKAR
ZAINDU**



Elorrioko udala



ELORRIOKO JAIK 2026

IRAILAK 4

- **11:00-14:00 / 16:00-20:00** Zintzilik emozioen laborategia. Ganondo.
- **17:30** Pilota eskolako esku pilota eta pala partiduak. Plazako frontoia. (3an, eguenean, 18:30ean pala partiduak). Antolatzailea: Hori hori Elorrioko Pilota Kluba.
- **18:00-20:00** Ferixa Nausikoetan eraso matxistak prebenitzeko material banaketa: protokoloa, kapela, eskumuturrak, telefonoen txartelak, edalontziak... Udaletxeko ataria.
- **23:00-02:00** Ibiltaria Alkoholen arriskuak prebenitzeko eta murrizteko programa. Antolatzailea: Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Adikzioen Prebentziorako

Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzagaz.

- **22:30** Kontzertuak. Txosnagunea
- Ostikoka
- Kaparrak
- Skareggekasko.

IRAILAK 5

- **11:00-14:00 / 16:00-20:00** Zintzilik emozioen laborategia. Ganondo.
- **11:30-14:00 - 16:30-19:00** Haur parkeak.
- **13:00** Bitsaren jaia. Plazako frontoia.
- **14:30** Elkartasun bazkaria. Txosnagunea.
- **17:00** Sasikoa - Zierbena - Elorrioko. Triangeluarra. Kiroldegia. Antolatzailea: Elorrioko Buskantza FKE.
- **18:00** Elorrioko buruhandiak. Plaza.

- **18:30** Ondalan erraldoien konpartsa. Plaza.
- **19:00** Gauargi taldea (erromeria). Plaza.
- **20:00** Txupinazoa eta pregoia: EME. Plaza (Elorrioko Merkatarien Elkarte).
- **22:00** Suzko zezena. Plaza
- **22:30** Danborrada. Plaza.
- **23:00** 'Fito y Platero'-ri gorazarre, Los Willson & Willsonetis. Urarka.
- **00:00** Dj-ak. Txosnagunea.

IRAILAK 6

- **10:00** Abere, nekazaritza eta artisau azoka. Ferixalekua
- **GOIZEAN** Txistularien kalejira. Antolatzailea: Elorrioko txistulariak.
- **12:00** Goxo Txaranga. Kalejira.
- **17:30** Federatuen esku pilota eta pala partiduak. Kiroldegiko frontoia. Antolatzailea: Hori hori Elorrioko Pilota Kluba.

- **18:00** Umeen danborrada. Plaza
- **19:30** Xabi Aburruzaga (kontzertua). Plaza
- **22:00** Suzko zezena. Plaza
- **22:30** Maruxak (kontzertua). Plaza

IRAILAK 7

- **12:00-14:00 / 17:00-20:00** Txu-txu trenak.
- **GOIZEAN**. Aldatsekua
- *DJ Flyu.*
- **13:00** Tortilla lehiaketa. Aldatsekua
- **14:00** Kuadrillen arteko bazkaria. Aldatsekua. *Mahai eta aulki banaketa goizeko 9etatik aurrera.
- **16:15** El Despiste fanfarrea. Aldatsekua
- **18:00** Kuadrillen jaitsiera. El Despiste fanfarrea
- **18:00** Erin & Paula DJ-ak. Plaza
- **18:30** 16 urtetik gorako kuadrillen arteko jolasak. Plaza
- **19:00** 'Ufadak' La Pulga eta lagunak (flamenkoa). Urarka
- **20:30** Erromeria. Txosnagunea
- **22:00** Suzko zezena. Plaza
- **00:30** DJ Disko Fusion. Plaza

IRAILAK 8

- **11:30-14:00 / 16:30-19:00** Haur parkeak.
- **18:00** Elorrioko buruhandiak. Plaza
- **18:00** Anepe (dantza klasea). Txosnagunea
- **18:00** C.D. Elorrio - Amorebieta "C" - Zaldia. Triangeluarra (lehenasunezko maila). Gizonezkoen partiduak. Elizalde. Antolatzailea: C.D. Elorrio
- **19:00** 'Gota' Txema Muñoz (magia). Plaza

IRAILAK 9

- **16:30** Umeentzako jolasak. Plaza. Antolatzailea: Txintxirri Ikastola
- **17:00** 3x3 saskibalo lehiaketa. Izen emate librea (16 urtetik gorakoak) San Joseko kanastak. Antolatzailea: Udalaitz S.T.
- **17:00** Mus txapelketa. Txosnagunea. Izen ematea 16:00etatik 16:45era.
- **18:00** Elorrioko buruhandiak. Plaza
- **18:00** Txokolatada. Plaza. Antolatzailea: Txintxirri Ikastola

Elizburu, 46-48
Tel.: 94 682 10 79
ELORRIO (Bizkaia)

ALBAÑILERIA

KURUTZONDO s.l.

SOLDAKETAK
ELORRIO S.L.

Egitura metalikoak · Enpresen mantenua ·
Altzairu erdolgaitza · Forja artistikoa ·
Soldaketa bereziak

Berriz Etor. 5, 14PK - 48230 ELORRIO Tel.: 671 650 143
soldaketakelorrio@yahoo.es 656 770 339

**ARKI
TEK
SAN**

ARQUITECTURA ESTUDIO TECNICA

WWW.ARKITEKSAN.COM
622 745 419
INFO@ARKITEKSAN.COM

**AROTZERIA
OROKORREAN**

Aratz Salazar Bilbao
Tel.: 647 21 07 88 · arotxin@gmail.com
ELORRIO Bizkaia

santillán
instalaciones™

Gas naturaleko instalazioen, klimatizazio-sistemen, berokuntza-sistemen, hozte-sistemen, aire konprimatuaren eta abarren ingeniariatza eta muntaia. Aire aldaketa itzela!

Betsalde ind. II.pab B5/B6 · 103 · 48230 Elorrio · Bizkaia
Tel.: 946 238 000 · Fax: 946 238 550 · info@santillan.es · www.santillan.es

- **18:00 C.D. Elorrio – Racing Santander – S.D. Eibar.** Triangeluarra (3 RFEF maila). Emakumezkoen partiduak. Elizalde. Antolatzailea: C.D. Elorrio
- **19:00 'Xelebreixon' Rojo Telón (zirkua).** Urarka

IRAILAK 10

- **18:30 Herri kirolak.** Txosnagunea
- **19:00 Emakumezko beteranoen lagunarteko partidua.** Kiroldegia. Antolatzailea: Elorrio Txantxibiri Eskubaloia Kluba
- **19:00 'Artilusio' Markeliñe (kale antzerkia).** Plaza

IRAILAK 11

- **09:15 Ibilbide zirkularra** Elorrio. Plaza. (Plaza-San Roke-San Jose- autokarabana gunea-Arraiarte-San Agustin-Kurutxondo-Plaza-Kiroldegia-Txanberi-Angio-Gazeta-Gerbilla-Aldape-San Juan-Zenita-Argiñeta-Lekeriketa-Kurutxondo-Plaza-Aldatsekua). Antolatzailea: Durangaldeko Bizidun Nagusien Elkarte



ELORRIO Los Zopilotes Txirriaos taldeak kontzertua emango du Ganondon, 22:30ean.

- **11:30 Hildako jubilatuen omenezko meza.** Sortzez Garbiaren Basilika.
- **13:00 Kopaua Elorrioko jubilatuentzat eta ibiltarientzat.** Aldatsekua
- **18:00 Jubilatuentzako dantza.** Aldatsekua
- **18:00 Elorrioko buruhandiak.** Plaza
- **19:00 'Intrínquis' Adrián Conde (zirkua).** Urarka
- **20:00 Bilboko Ganbera Abesbatza eta Orkestra.** Arriola. (Opera-Zarzuela).
- **20:30 DJ Txululu (arratsaldeko parranda: 70eko, 80ko, 90eko hamarkadak).** Urarka
- **22:00 Suzko zezena.** Plaza

- **22:30 Kontzertuak:** Los Zopilotes Txirriaos. Ganondo.

IRAILAK 12

- **8:00 Sukalki eguna.** Aldatsekua. Zatoz moztorra jantzita! Antolatzailea: Iturizoro elkarteartea
- **11:30-14:00 / 16:30-19:00** Haur parkeak. *Ikusi informazioan eta oharretan.
- **12:00-14:00 / 17:00-20:00** Txu-txu tren. *Ikusi informazioan eta oharretan.
- **13:00** Plazako frontoia. Bitsaren jaia.
- **16:00** Aldatsekua. Kaletrik (plaza dantza).
- **18:00** Txokolatada. Plaza. Laguntzailea: La Esperanza nagusien elkarte
- **18:00** Karrozen jaitsiera. Aldatsekua. QRa izena emateko. Ibilbidea: Aldatsekua-Berrio Otxoa- Plaza-San Pio- taxi geltokia-ikastola-Errebonbillo-Erekakale-Plaza.
- **18:00** Disko Sound 4. Plaza
- **22:00** Suzko zezena. Plaza
- **22:30** DJ Kene.mp3 & DJ Sierritx & DJ Delko. Plaza

IRAILAK 13

- **11:30-14:00 / 16:30-19:00** Haur parkeak.
- **12:00** Elorrioko kolore eta zapoak (kulturarteko jaia). Kanpokale. Antolatzailea: Kainabera GKE
- **13:00** Herri kirola. Plaza. Jon Gisasola eta Goizeder Abendibar harrijasotze erakustaldian; Kepa Solozabal eta Ioritz Gisasola bikotea, Ainize Perez eta Xabier Zaldia bikotearen aurka aitzorari; Izaro Solozabal iparraldeko jokoen erakustaldia (ingude jasotzea eta txinga eramatea); bikote mistoak trontza desafioan
- **18:00** Bertso saioa: Txaber Altube, Sustrai Colina, Oihana Bartra eta Miren Artetxe. Aldatsekua. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.
- **19:30** 'loi' HAATIK Dantza konpainia (dantza ikuskizuna). Plaza



Argiñeta

HIRIGINTZA ETA INMOBILIARIA BULEGOA

ZURE KONFIANTZAZKO INMOBILIARIA
Jai zoriontsuak izan

Urarka, 1 Elorrio - Tel.: 946 820 041
argineta@euskalnet.net
www.argineta.net

CUMENOR
ERAIKUNTZA-ENPRESA

Mota guztietako obrak
(Igeltserotza, egiturak eta proiektuak).

Estalki eta fatxadaren itxierak.

Estalkien birgaikuntza
eta mantentze-lanak.

Amiantoaren kentzeko lanak.



Tel.: 94 621 56 77

Ibaizabal k/ 1 - 48260 Elorrio Bizkaia

info@cumenor.com - www.cumenor.com



Erreka20

ARKITEKTURA

arkitektura@rk202.com
699 356 607



ITURGINTZA - BEROGINTZA - GASA
INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 - unaigaray@yahoo.es



U3 Arkitektura Teknikoa

Ibaizabal kalea, 1

48230 Elorrio

Tel.: 672 256 352

Eraikuntza-obra

Proiektuen kudeaketa osoa

Obra berria, birgaikuntza,
zaharberitze lanak eta
legalizazioak

info@u-3.es

Certified First

**AUTOGAIN
TALLERES**

**TXAPA eta PINTURA
PNEUMATIKOAK**

San Agustin Indus. 57, 6 nabea.

ELORRIO (Bizkaia)

Tel.: 946 056 732 / Mug.: 679 174 367

autogain@hotmail.es

"Txupinazoaren momentuan EMEn zapiekin plaza horiz janztea gura dugu"

EME ELKARTEKO KIDEAK

JONE GUENETXEA ELORRIO

Elorrioko dendari eta ostalarien eguneroko lanari eskerrak, herriko kaleak bizirik daude. Baina zerbitzuen munduan jardutea geroago eta gatzagoa da. Saltoki handiek eta online plataformek eragin handia izan dute azken urteetan. Horregaitik, EME merkatari elkarteari merezitako omenaldia egingo diote bere 25. urteurrenean. Txupinazoa jaurtiko dute irailaren 5ean. Udaletxeko balkoira igoko diren elkarte hamar pertsonen artean Izaskun Agirre Arruabarrena, Inma Gallego Zabala, Itziar Solozabal Orbegoza eta Ana Larrañaga Bergaretxe batzordekideak izango dira.

Pozik hartuko zenuten txupinazoa botatzeko ardura.

Izaskun Agirre: Egia esanda, geu joan ginen eskatzera. Pentsatzen genuen gure urtea dela,

25 urte, eta horregaitik geure burua eskaini genuen.

Inma Gallego: 25. urteurrenaren ospakizun urtea izanda, herritarrei eskerrak emateko aukera ona izango da. Oso pozik gaude. **Pentsatu duzue momentu hori zelan antolatu?**

I.A.: Aspalditik dago dena pentsatuta; oporren aurretik dena eginda utzi gura genuen.

Zeozer aurreratu daiteke?

I.A.: Hamar pertsona igo gaitezkeenez, pertsona bi iraganeko elkartekideak izango dira, juntakideak eta baita elkartean hasiberriak diren gazteak ere.

I.G.: Ostalariak ere egongo dira. Izan ere, EME ez dute dendariak bakarrik osatzen. Zerbitzuen elkarte bat da eta udaletxeko balkoian ordezkaritza zabala egotea gura genuke.

Zer da pregoian nabarmendu gura duzuen ideia nagusia?

Itziar Solozabal: Poza transmititu gura dugu.

Ana Larrañaga: Komunitatea garelara, komertzio txikiak herriari bizia ematen diola, eta eskerrak emateko momentua izango da. Elorrio ez dela handia, baina kalitatezko komertzioa eta zerbitzuak ditugula bertan.

Jendeak baloratzen du eskaintzen duzuen kalitatea eta zerbitzua?

A.L.: Baietz esango nuke; horregaitik gaude hemen.

I.G.: Horrela dela suposatzen da, baina gero asko jotzen da kanpora, batez ere online erosketetara. **Azken urteotan zelan nabaritu duzue online salmenten eragina?**

I.A.: Pandemiatik hona asko igo da online erosteko joera.

Pandemian esaten zen zero kilometroak garrantzi handia zuela. Momentu hartan gertukotasunaren kontzientzia piztu zela ematen zuen. Ez dugu ezer ikasi?



Goian Ana Larrañaga eta Inma Gallego, eta behean Izaskun Agirre eta Itziar Solozabal, jaietan ban

BATZOKI
ELORRIO
www.batzokielorrio.es
Urarka 13 - Elorrio / T. 94 685 5656 / M. 615 258 035

LABORAL kutxa
Berrio - Otxoa, 5 Elorrio Tel: 94 658 27 61

Elect. FDEZ
INSTALAKUNTZAK ETA SISTEMAK
Telekomunikazioa - Elektrizitatea
Elektronika - Mantenua
Ibarrakalea, 5 baxo - Elorrio
Tel: 946 582 943 / 685 750 401

Parriaundi
BETOKO OGIA - BENETAKO OGIA
Parriaundi Elorrio
Urarka kalea 21, Elorrio
946 582 003

AZKARRETA
- EXCAVACIONES -
T. 946 582 838 - info@azkarreta.com - Ibaikua 2, behea Elorrio
www.azkarreta.com

berriozabaleta
ITURGINTZA
BEROKUNTZA
GASA
INSTALATZAILE
BAIMENDUA
Elorrio
berriozabaleta@yahoo.es
Tel.: 609 381 887

ANRO
IGELTSARITZA
TA ERREFORMAK
Toño
Rodríguez Moreno
Elizalde, 9 - 1.º ezk. ELORRIO
94 682 08 89 - 680 62 70 65
anroinfo@gmail.com

ETXEANDIA
Administración de Fincas
Nazaret Etxeandia Berrio
Kolegiatu zk.º 37,046
946 202 673
etxeandia_admon@yahoo.es
Erreka kale, 17 behea 2
ELORRIO (Bizkaia)



atuko dituzten zapiak eskuetan dituztela.

I.A.: Ez. Hori guzti hori ahaztu egin da.

A.L.: Pandemia sasoian online salmentak izugarri igo ziren. Pandemian salmenta mota horren joera indartu egin zen eta asko igarri genuen.

Horren aurrean, zeintzuk dira tokiko komertzioaren erronkak?

I.A.: Zer gura dugu, herria hutsik egotea? Jendeak erosketak herrian egiten ez baditu, kalean inork kaferik hartzen ez badu... herria hutsik egongo da. Ezagutu dudana herria gaur egungoagaz alderatuta asko aldatu da.

Erreleboari dagokionez, komertzio batzuk itxi egin dira eta ez da transmisiorik egon.

I.A.: Ez dago erreleborik ez dagoelako denda txikietan erosteko kontzientziarik.

A.L.: Erraztasun gutxi dago lokalak alokatzeko, eskatzen diren baldintzetan egokitzeko...

I.A.: Oztupo horiek guk ere izan genituen zabaldu genuenean, baina saldu egiten zen. Baina gaur egun egoera oso desberdina da.

Gogoan duzue denda zabalitzea erabaki zenuten momentua?

I.A.: Orain dela 28 urte izan zen, EME sortu aurretik. Erre-

leboa hartu nuen, baina nire seme-alabei uztea ez zait burutik pasatzen. Lehen, beste giro bat zegoen kalean. Orain, 11:00etan dendatik urten eta kaleak hutsik ikusten ditut.

A.L.: 30 urte joan dira ordutik. Ni eibartarra naiz. Beti izan naiz autonomia eta handik ihes egin guran etortzen nintzen Erreka tabernara, bikotekideagaz, bera elorriarra zen eta. Askotan esaten nion hemen ez zegoela eskaparaterik eta egunen batean denda bat zabalduko nuela. Ilusio handiz zabaldu nuen eta ilusio handiz jarraitzen dut.

I.G.: Gure kasua desberdina da. Gu elkarte bat gara eta ni ez naiz autonomia. Elkarte horrentzat lan egiten dut, Anbotopekon. Beste denda formatu bat da. Hala ere, etxean beti ezagutu dut mostradore bat edo tabernako barra bat. Urte gutxi da-

ramatzagu; sei, hain zuzen ere. Ikusten dugu gure lanak erantzun ona izan duela eta kontzientzia pizten dabilela, baina oso astiro. Beste denda batzuen arazoak entzuterakoan harrituta geratzen naiz. Herrian kontsumitzen duen pertsona bat naiz, eta horri eusten ahalegintzen naiz.

I.S.: Nire kasuan, amak altzari denda bat zuen eta institutua amaitzerakoan dekorazioa ikasi nuen Gasteizen. Nik ikasitakoa desberdina zen, baina ama jubilatutaz zenean dendagaz jarraitu nuen, beste norabide bat emanda, beti ikasten eta gauzak aldatzen.

Zailtasunak zailtasun, zein mezu-gaz geratzen zarete?

I.S.: Bezeroei eskerrak ematea gura nuke.

I.A.: Bezeroei eskerrak gaude hemen.

A.L.: Bertakoa sentitu naiz lehenengo momentutik, eta dendara datorren jendea maitagarria da.

Don eskuratu daitezke jaietako zapiak?

I.A.: Denda eta tabernetan doan banatuko ditugunez, herritarrek zapiak janztera animatzen ditugu. Plaza kolore horiz janztea gura dugu. Gora Ferixa Nausikoak!

"Pandemia sasoian online erosteko joera indartu egin zen eta asko igarri genuen"

Guria Nino
 Guria nino, gure sukaldaritza tradizional finkatuz gainera, laser sukaldaritza italiarrek plater benetazkoak eta guk etxean egindako piztoak dastatu ahal izango dituzu. Horrez gainera, gure tratu hurbilaz eta familiarek gozatu ahalko duzu.

Ibaikua, z/g. ELORRIO / BIZKAIA
 Tel.: 94 623 17 95

Autocares Mallabia
 Murueta Torre, 2G blokea, behea
 48200 DURANGO - Bizkaia
 Tlf. 94 620 19 76 / Fax. 94 620 23 48
 www.autocaresmallabia.com
 info@autocaresmallabia.com

MUGIKORTASUN URRIKO
 PERTSONENTZAKO
 IBILGAILU EGOKITUA

FERIXA
 Izan kaha, izan ardoa,
 eskatu euskaraz zure tragoa.

Instalaciones Altuna S.L.
 BEROKUNTZA-INSTALAZIOAK: GASA, GASOLIOA ETA EGURRA
 ITURGINTZA - EGUZKI PLAKAK - GEOTERMIA INSTALAZIOAK
 IMPERMEABILIZAZIOAK - GAS PROPANOKO INSTALAZIOAK

San Juan, 4 - Tel.: 946 820 062
 Mug.: 657 796 590
 Elorrio

TXINTXIRRI ELORRIOKO IKASTOLA
 Euskara bihotzean eta ahoan, ondo ibili Ferixa Nausikoetan!

San Pio 3, ELORRIO
 Tel.: 946 582 261
 elorrioikastola.eus

NK ARRINDA
 ELEKTRO-TRESNAK

Ondo pasa jaixetan!
 Erreka, 23 ELORRIO
 Tel.: 946 808 483

Jone Guenetxea ELORRIO

Elorrioko jaietako txupinazoagaz Ferixa Nausikoei hasiera eman-go diete Elorrion, irailaren 5ean. EME merkatari elkarteko kideen hori koloreko zapiak udaletxeko plaza beteko dute. Momentu horretatik aurrera, ekitaldi sorta oparoagaz gozatuko dute.

Aurtengo jaietako nobedaderik garrantzitsuenetariko bat txosnagunearen kokapena izango da. Bokaten txosna Buzkantz kalean egongo da, eta karpa azpiko txosnak zein haien kontzertuak Ganondoko sarreran egingo dira. Beste nobedadeetariko bat karrrozen jaitsieran izango da, ibilbide berria prestatu dute eta: Aldatsekuatik abiatu, herriko plazatik igaro eta San Pio, Errebobilo eta Erreka kaletik berriro plazaraino.

Horrez gainera, autobus zerbitzuak indartu eta egokituko dituzte, jaietan kanpotik datozen bisitariei joan-etorriak errazteko.

Ferixako datuak

Ferixako azokan "ahalik eta eskaintzarik zabalena" bildu gura izan dutela nabarmendu du udalak, "nekazari, artisau eta abeltzainen parte-hartzea bultzatuta".



lazko Ferixa Nausikoetako azokako argazki bat.

Ferixa Nausikoetako nobedadeak: azoka abelburuekin eta txosnak kokaleku berrian

Bokaten txosna Buzkantz kalean egongo da, eta txosnak Ganondoko sarreran

Ferixa Nausikoetako beste nobedadeetariko bat azokan abelburuak egotea da. Aurreikuspen arabera, aurtengo behiak eta idiak ere izango dira bertan. Lehenago, behien artean zabal-dutako gaitz bat dela eta, Eusko

Jaurlaritzak debekatu egin zuen behiak eta idiak eramatea azoketara. Abadiñoko San Blas azokan, esate baterako. Orain, baina, Jaurlaritzak debeku hori bertan behera utzi du, eta Ferixa Nausikoetan igarriko da hori.

Protokolo feminista, martxan

Ferixa Nausikoetan jai parekide, seguru eta errespetuzkoen aldeko konpromisoa berretsiko dutela azpimarratu dute. Horretarako, herriko mugimendu feministak eta udalak elkarlanean,

eraso matxista eta arrazisten aurkako protokolo feminista aktibatuko dute berriro. Informazioa edo laguntza behar duten pertsonen 688 86 52 94 telefono zenbakira jo ahal izango dute, eta jaietan zehar txapel moreak banatuko dituzte. Mugimendu Feministak mezu argia plazaratu du ohar batean: "Erasotzaile, ez daukazu lekurik. Egoten ez badakizu, ez etorri, geratu zeure etxean. Eta eraso zure lagunak egiten badu? Erasoa eraso izaten jarraitzen du, gertuko izateak ez dio larritasunik kentzen egotzari. Hori moztea zure ardura da. Autodefentsa feministaz antolatuta gaude".

Julene Lazkano alkateak jaiak bizitzeko gonbita egin die herritarrei: "Eskerrik beroenak eman gura dizkiegu jaiak posible egiten dituzten elkarte, eragile, boluntario, udal langile, merkatari, ostalari, nekazari, abeltzain eta artisau guztiei. Haien konpromisoari eskerrak, Elorriok jai biziak, parte-hartzaileak eta guztiontzako irekiak ospatzen ditu urterik urte. Herritar guztiei gonbidapena egiten diet jaiak euskaraz, errespetuz, berdintasunez eta arduraz gozatzeraz".

Musiko Arriola, 1
Elorrio
Tel: 946 231 415
Tel: 946 820 888

Argiñeta hiribidea, 4, ELORRIO
ecolaundry.es

MEKANIKA OROKORRA
AUKERAKO IBILGAILUEN SALMENTA
KARROZERIAK
Tel. 94 658 30 60
Pol.Betsaide, 9
48230 ELORRIO

HAUEN SALMENTA, KONPONKETA
ETA MANTENTZEA:
- KONPRESOREAK
- LEHORGAILUAK
- INSTALAZIO PNEUMATIKOAK
- AIREARENTRATAMENDUA
- HOTZ INDUSTRIALA
ZERBITZU OFIZIALA:
BOGE
48230 Elorrio (Bizkaia)
Tel.: 946 820 666
berriair@berriair.com

VANESSA BERAZA
Aseguruak eta inbertsioak
MIFID II
946 582 448 • 679 182 536
Kantokale, 10 ELORRIO
vruizca@mapfre.com

Calderería **EZAGUN** Galdegaragintza
Forjaketa artistikoa
Enpresen mantentze lanak
Lanak herdoilgaitzean
Erremontaritzea oro bar
Oidor Berriozabalbestia Pab 10
Elorrio
Tel.: 946 584 547
ezagunsl@ezagunsl.e.telefonica.net

HOBETU
Fisioterapia & Podología
INDIBA EKOGRAFIAK
ONDO PASA
JAIETAN!
info@hobetu.es
Tel: 946 582 444
Buzkantz kalea, 2 - Elorrio
www.hobetu.es

SOLOZABAL
autoeskolak
• TEORIKOA ATERATZEKO IKASTARO
TRINKOAK: Atera ezazu teorikoa 5 egunetan,
100% gainditzen du.
• CAP ikastaroak profesionalentzat
• Teoriko orokorra euskaraz ONLINE
• Gida balmen guztiak
HEMEN GAUDE:
Urarka kalea, 20 • Tel.: 946 583 441
ELORRIO

TXOKOLAT
DARRETAIRIK, DENONTZAT!
BERRIOTXOA KALEA, 3
Tel.: 946 584 367

"Euskadin oso errotua dago kartelgintza; jaietakoei garrantzi handia ematen zaie"

JOSE LUIS PULIDO CALVO DISEINATZAILE GRAFIKOA



Jose Luis Pulido, jaietako irudia eskuetan duela.

Aritz Maldonado ELORRIO

Jose Luis Pulido diseinatzaile grafikoa Madrilen bizi da, baina ezagutzen ditu Euskal Herriko jai batzuk. Hainbat herritako jaietako irudiak egin ditu eta aurtengo Elorrioko Ferixa Nausikoetako irudia berea da.

Zerk motibatu zintuen Elorrioko jaietako kartel lehiaketan parte hartzea?

Diseinatzailea naiz ofizioz, eta, autonomia ere banaizenez, halako lehiaketatan ere parte hartzen dut. Deialdien berri izaten dut eta ahal dudana neurrian parte hartzen dut. Emaztea Euskadikoa da, eta nahiko hartu-eman estua dut hango jaiekin ere. Uste dut ulertu dudala hango jaien funtsa, eta hori iruditara eramaten asmatu dut. Durangaldetik Durango eta Elorrio ezagutzen ditut, Bilbon eta inguruetan sarri ibili naizelako.

Askotan etortzen zara?

Madrilen bizi naiz, baina asko gustatzen zait hara joatea. Hango jendea ere ezagutzen dut, eta euren bitartez tradizioa eta kultura ere ezagutzen ditut. Irudian hori islatzen ahalegindu naiz: jaiak, artisautza, abeltzaintza, txupina, danborrada... denetik apur bat. Kartel bat egiten dudana bakoitzean, dokumentazio lana ere egiten dut, eta, Elorrioren kasuan, inguruetako jai batzuk ezagutzen ditudanez, inspiraziorako balio izan dit.

Hogeitaz baina gehiago daramatzazu diseinu lanetan.

Bai, urte dezente. Kartelgintza hamar bat urte. Diseinu grafiakoaren arloan lana asko jaitsi da. Nik sektorean beste lan batzuk ere egiten ditudan arren, beste abagune batzuk ere topatu behar ditut. Kartelgintza gustuko dudanez, mundu horretan nabil azken urteetan. Buruan une oro ditut ideia berriak. Beraz, une honetan, alde batetik, sortzaile legez interesatzen zait kartelgintza, eta, bestetik, diru iturri bat ere badelako.

Azken urteetan asko aldatuko zen diseinugintza. Aro digital betean, zelako garrantzia dute kartelek?

Esango nuke garrantzia mantentzen duela, eta kasu horretan ez dela aldatu. Joerak aldatzea bai, hori gertatu da. Nik ia sorreratik ezagutzen dut diseinu digitala. Inprenta tradizionalagaz hasi nintzen eta eguneratzen joan behar izan dut. Baina hori gauza bat da, eta beste bat irudi bat modaz pasatzea, eta hori ez da gertatuko. Gainera, Euskadin oso errotuta dago kartelgintza, garrantzi handia ematen zaio, jai guztiek dute euren kartela. Hemen, Madril, ez zaio hainbesteko garrantzirik ematen. Gainera, lehiaketa bidez aukeratzera, parte hartzea eta lotura handitzen da. Bertan bizi ez garenok ere parte hartu dezakegu. Ni oso identifikatuta sentitzen naiz euskal kulturagaz, eta gustura egiten ditut hango jaietarako kartelak.

Etorriko zara jaietara?

Gura nuke, baina ez dut uste. Aurtengaz ez behintzat. Abuztuaren handik ibiliko naiz eta ziur festaren batera joango naizela. Hango jaiak oso parte hartzaileak dira, eta estimu handitan ditut. Tradizioa errespetatzen duten jaiak dira, baina baita garaietara egokitzen jakin dutenak ere.

ELORRIXON BIZI, ELORRIXON EROSI. DENOK IRABAZI!!!

Ondo pasa jaietan!

ELORRIOKO MERKATARIEN ELKARTEA

URKILAN

Urkizauran 38, Elorrio

Tel.: 946 820 237

- KMO autoen salmenta
- Mekanika orokorra
- Elektronika
- Aire gutxi RTDA eta 1234ly
- Gargien aldatzea
- IAE aurteko atzeraketa
- ADAS programazioa
- Kaja automatikoen diraketa

TALDEAREN OROKUTIA

Astireratik ostegunera

8:30 - 13:00

14:30 - 19:00

9:30 - 19:00

ELORRIO BULTZATZENI ONDO PASA JAIETANI

Betsaide

www.betsaide.com

Betsaide, 1 Elorrio

Tel.: 9454 584 560

XELAI Taberna

HANBURGESAK · PIZZAK

RAZIOAK · ENTALADAK

ESKAERA ERRESERBAK

94.655.02.66

Nizeto Urkizu, 37-39

48230 ELORRIO

www.xelaitaberna.eus

Elorri

Nizeto Urkizu 10

Elorrio

Instagram: @okindegjelorri

Facebook: Elorri Kafetegia Okindegia

632 632 509



Maruxak.



Kaparrak.

Askotariko musikak dantzan ipiniko ditu elorriarrak Ferixa Nausikoetan

Los Zopilotes Txirriaos, Maruxak, Kaparrak eta Xabi Aburruzaga izango dira, besteak beste

A. M. ELORRIO

Ferixa Nausikoetako protagonistarik handienetarik bat musika da. Urtero legez, askotariko doinuak egongo dira eta musika egitarau zabala aurkeztu dute, beste urte batez. Aurten, txosnagunea Ganondo parkearen inguruetara lekualdatu dute, eta bertan izango dira kontzertuetariko batzuk.

Elorriarrek martxa handiz hasiko dute jaietako lehenengo eguna, irailaren 4a. Txosnagu-

nean, Ostikoka, Kaparrak eta Skaregekasko taldeek zuzeneko indartsuak egingo dituzte, gazteen gustukoak, batez ere. Kaparrak aretxabaletarrek Euskal Herriko agertokiak aztoratu dituzte azkenaldian euren runba doinuekin; Elorrion bertan, orain urte pare bat txiki utzi zuten gaztetxea eta kalean eman behar izan zuten kontzertua. Los Delinquentes taldearen bertsioak egiten hasi zen taldea, 2023an, eta gerora euren abestiak egiten hasi ziren;

izenak berak ere Delinquentesen *Garrapatero* abestiari erreferentzia egiten dio. Taldeak oihartzun handia lortu du gazte giroan, batez ere *Bollikao*, *Gaupasa*, *Lo-*

Urte batzuen ondoren, Los Zopilotes Txirriaos berriro martxan da, irailaren 11n Elorrion

retxoa eta *Karnabal egunero* ereserki festazaleekin. Ostikoka talde iruindarrak punk doinuak jorratzen ditu eta Skaregekaskok doinu tropikalagoak joko ditu gaua borobiltzeko.

Zapatuan, Gauargik erromeria doinuak eskainiko ditu plazan. Bestalde, Los Wilson & Wilsonetis taldeak Fito&Fitipaldis eta Platero y Tú taldeen abestirik arrakastatsuenak joko dituzte zuzenean. Eta txosnetan DJ-en emanaldiak egongo dira. Azoka

egunean ere ez da musika eskaintza faltako. 19:30ean, Xabi Aburruzagak triki kontzertuagaz ipiniko du dantzan plaza. Ondoren, 22:30ean, eta egun luzeko parranda borobiltzeko, Maruxak kolektibo trabestiak jaietako emanaldirik koloretsuena egingo du plazan.

Urte batzuk geldirik eman eta gero, Los Zopilotes Txirriaos nafarrak berriro martxan ipini dira. Konejo Eseberri eta enparauek *Caminos de Guanajuato* diskoa kaleratu zuten iaz, eta uda plazarik plaza igaro dute euren napar-mex doinuekin ikusleak dantzara animatzen; beraz, sasoi betean helduko dira Elorrion irailaren 11n joko duten kontzertura.

Giroak goia joko du Sukalki egunean ere, eta hala jarraituko du herriko zenbait gunetan egongo diren DJ-en emanaldiekin.

Tanger
J A T E T X E A
Ibaikua, 8. ELORRIO
Tel.: 946 820 052

eroan
DURANGALDEKO EDUKIONTZI ZERBITZUA
94 682 03 90
contenedores **eroan** s.l.
Lekeriketa Auzoa, s/n - Apartado 88
48230 - Tel.: 946 820 390
eroan@eroan.es

PORTALEKUA
25 URTE HERRIA EGINEZI

ZUBIERTZ TABERNA
Errazioak, ogitartekoak,
hanburgesak, sandwichak ...
Erreserbak eta etxera
eramateko eskariak egiteko
telefonoa: 682 809 796
Erreka kalea 23, behe

"Guretzat oso esanguratsua den lelo bat dugu: ez da zer egiten den, zelan baino"

XABIER AMORRORTU ZINTZILIK EMOZIOEN LABORATEGIA

Aritz Maldonado ELORRIO

Proposamen berritzaile gutxi egoten da herrietako jaietan 12tik 16 urtera arteko gazteen-tzat. Zintzilik emozioen laborategiko kideek emozioak eta gorputza konektatzeko aukera eskaintzen dizkiete, besteak beste. Orain bost urtetik hona, urtero euren lekua dute Elorrioko Ferixa Nausikoetan. Aurten, Ganondo parkean egongo dira, irailaren 5ean, 11:00-14:00 eta 16:00-20:00 bitartean, euren soka, sare eta gainerako erremintekin.

Zelan hasi zineten jaietan parte hartzen?

12tik 16 urtera arteko gazteen-tzat hutsune bat zegoela ikusi genuen eta haien gustuko zeozer egin gura genuen; kirolagaz, aisialdiagaz eta emozioekin zerikusia izango zuen zeozer proposatu gura genuen, hutsu-

ne hori beteko duen alternatiba desberdin bat, betiko barra-ka edo txosnetatik harago doana. Emozioak ez ezik, psikomotrizitatea ere landu gura genuen, normalean lantzen ez den lekuetan, edo eskaladagaz, sareekin, konpromisoagaz... Zelanbait ekarpen bat egin gura diegu guk ere.

Orokorrean, adin tarte nahiko alboratua da, ezta?

Bai, eta ez da erraza asmatzea. Gauza asko dago umeentzat zein helduentzat, eta hauek tartean daude. Eurentzat esparru babestu bat prestatzen ahalgintzen gara, eurentzat bereziki egindako zeozer dela sentitzea gura dugu zelanbait, eurekin egon, jolastu eta baita elkarregaz bizitzari buruz berba egiteko ere. Paralelismo bat eginda, tirolinaren soka gainean jarrita, sarea dagoela, bizitzan

ditugun oztopo edo bideez ikas- teko baliagarria da, ezta? Fun- tsean, filosofia horri jarraitzen diogu, eta beldurra eta halako sentimenduak barneratzea, sentitzea, ulertzea eta horiei buruz berba egitea gura dugu. Guretzat oso esanguratsua den lelo bat dugu: 'Ez da zer egiten den, zelan egiten den baino'. Behin sarea ipinita, bidaia horretan animatzen, entzuten eta galdetzen ahalgintzen gara, alboan egoten, azken finean. Badaude gazte batzuk lasai daudenak, egonkortasun batean, baina beste batzuek laguntza edo helduleku bat behar dute. Erronkarik handiena dira, bai- na baita gehien aportatzen du- tenak ere. Pertsona batek zer behar duen asmatzea eder-ede- rra da.

Zuen tokitxoan egin duzue jaietako egitarauan.



Xabier Amorrortu.

Bai, eta esan daiteke elorriarrek gustura jaso dutela proiektua. Gugaz kontatzen jarraitzen dute. Guretzat oso polita da muntake- ta lanekin gabiltzanean umeak hurbildu eta 'Aurten ere egongo zarete?' galdetzea. Euren aurpe- gietan poza ikusten dugu eta ez daukagu berbarik sententzio hori deskribatzeko. Zelako gogoagaz etortzen diren ikustea ere oso pozgarria da.

Mota desberdinetako ekintzak egiten dituzte gugaz, eta hori ere eskertzen dute. Denerik egiten dutenak daude, eta beste batzuk

ez dira irteten zirkutik, sareen gunetik edo oreka soketatik.

Pantailetatik urruntzeko ere aukera ona izango da

Bai, baina, pantailetatik harago ere, bestelako hartu-eman edo sententzio batzuk garatzen dira. Azken urte bietan, adibidez, egu- raldi txarra tokatu zaigu. Uste genuen inortxo ere ez zela eto- rriko, baina alderantziz gertatu da. Gurasoak zein gazteak zira jantzita edo euripean jolasteko gogoz etorri izan dira, eta askok barruko animalia hori oraindi- no gehiago ateratzen dute.

GU BABESTEKO
JAIO ZEN LANBIDEA



SOLATSU

Telleria · Baserria

Bisita Gidatuak · Tailerrak · Apartamentuak · Ekitaldiak

San Agustin Auzoa 50 48230 Elorrio · Bizkaia
634 73 52 92 /info@solatsu.com

www.solatsu.com

LAU-HORTZA

Hula hoop



JASONE AGIRRE
GARITAONANDIA

Gure aittek plastikozko hodiak egiten zituen fabrika batean egin zuen lan urteetan, Matienan. Instalazio elektrikoetan edo erabiltzeko ziren hodiak. Egia esan, umetan guk interes handirik ez horretan; txokolate fabrika izan balitz, akaso.

Baina 80ko hamarkadan, halako batean, modan ipini ziren Hula Hoop-ak, gerria astintzeko uztai biribilak. Aitten lantegian plastikozko tutuak egiten zituztenez, enkargua jaso zuten, eta metroak eta metroak prestatu zituzten zorioneko uztaiok ekoizteko. Txatal batzuk hartu, eta hiruzpalau egin zizkigun aitek: berdea, gorria, urdina, horia... A zelako poza.

Geure eskilaran ez zituen inork eta guk bat baino gehiago, eta koloreak aukeran. Bizitzan lehen aldiz pribilegioa zer zen sentitu nuen, pobreen modu xumean akaso, baina pribilegioa, harik eta Hula Hoopen moda pasatu arte. Jakina, bizitza.

Egun haietako oroitzapen ederra gorde izan dut beti. Gero, urteetan ez dut apenas Hula Hoopik berriro ikusi, lehengo egunera arte. Telebistako albiste batean izan zen. Ilargi Gorriaren auto batean koloretako uztai biribilak zeramatza. Gazako umeekin jolasak egiteko, euren mina arindu nahian edo. Eta berriro, gura barik, pribilegiatu sentitu nintzen; dagoenik eta modu gorrotagarrienean, pribilegiadun.

AKUILUA

"Ile-apaindegia nire bizitza izan da; bezeroak asko maite izan ditut eta eurek ni ere bai"

MAITE EREÑO CARRETO ILE APAINTZAILEA

Aitziber Basauri DURANGO

Maite Ereñok (Durango, 1946) bizi osoa eman du ile-apaintzaile legez Durangon. Maite du bere ofizioa eta joan zen ekainera arte izan du zabalik ile-apaindegia, 46 urtez.

Noiz hasi zinen ile-apaintzaile?

14 urteaz, Alazne Larrinagagaz. 15 urteaz Bartzelonara (Herrialde Katalanak) joan nintzen Llongueraseguz ikastera. Urtebete egin nuen han. Lehenengo ile-apaindegia 23 urteaz zabaldu nuen, Kurutziagan. Geroago, Andra Marira aldatu nuen, eta 46 urtez mantendu dut zabalik. Ilea apaintzea bokazio izan dut, izugarri gustatu zait nire lana.

Asko aldatu da ile-apaintzaile.

Guztiz. Lehen lan asko egiten zen, eta mimo handiagaz. Gaur egun samurragoa da, ile-apaindegi batzuetan errulorik ere ez dago. Batez ere, ilea apaintzeko teknikak aldatu dira. Bestalde, bezeroekin hartu-eman beste modu batekoa zen lehen. Gauza asko kontatzen zizuten. Psikologoak ere baginen, apur bat. Bartzelonan ikasi nuenean, psikologia eskolak ere hartu nituen. Oso garrantzitsua da entzuten jakitea. Orrazteko eta ilea mozteko, beharrezko tresna guztiak ez ezik, egoten jakitea ere ezinbestekoa da, bezeroekin denbora ematen dugu eta.

Sekretu asko gordetzen duzu?

Asko! Lanean hasi nintzenean aita esan zidan, "zuk entzun, ikusi eta isilik egon". Eta hala xe egin dut.



Maite Ereño, Andra Marian izan duen ile-apaindegian.

Atzera begiratuta, zer sentsazio duzu? Zeren falta igarriko duzu?

Kostatu zait ileapaindegia ixtea, eta bezeroekin izan dudana hartu-emanaren falta igarriko dut gehien. Seme-alabek ere esana zidaten nahikoa egin nuela, eta azkenean ekainean erretiratu nintzen. Ile-apaindegiak dena eman dit, bete egin nau. Oso pozik aritu naiz lanean. Gainera, ia 30 urtez nigaz lanean ibili den Agurtzane ere hor egon da beti. Sasoi batean, zortzi langile ere izan ditut. Bezeroak Zaldibartik, Berriztik, Elorriotik,

Motzean

Zeren falta igarriko duzu

Denaren falta

Ile-apaintzaile egindako urteak definitzen duen berba?

Zoriona. Berriro jaiotz gero, ofizio bera izango nuke.

Hondartza ala mendia?

Hondartza.

Durangoko txoko bat?

Txukun, koinatagaz

iluntzero batzen naiz han.

Zornotzatik... etortzen ziren orraztera edo ilea moztara. Orain jendea ez doa ile-apaindegira lehengo moduan.

Gutxiago joaten gara ile-apaindegira?

Bai. Batez ere, gazteak. Ilea luze daramate eta apur bat moztara baino ez dira joaten. Bizi osoan ile apaindegira astero etorri diren bezeroak izan ditut. Dena dela, nire moduko andre nagusi batzuek baino ez dugu ohitura hori mantentzen. Gazteagoak orain ez doaz gu lehen joaten ginen moduan. Ez du zerikusirik. Askok etxean tindatzen dute ilea, edo urdinduta eramatea erabaki dute. Askok uzten dute ilea urdintzen, lehen pentsaezina zen hori.

Urteotan izandako teknika aldatetara egokituz joan zara.

Ganora izanez gero segituan egokitzen zara. Oso ondo irakasten ziguten. Ilea mozteko da oinarria, eta beste kontu bat dira tindatzea, dekolazioa, orrazkera, permanentea... Ikasteko eta teknika berrietara egokitzeko asko bidaitu dut Parisera, Madrilera, Bartzelonara... Egipton, Italian eta Holandan ere izan naiz. Ofizio honetan egunean egon beharra dago. Joerak aldatu egiten dira. Gizonak orain asko joaten dira. **Kalera beti apain irteten diren horietako zara?**

Bai. Uste dut inoiz ez naizela kalera irteten apaindu barik.

Zugan konfiantza izan duten bezero horiei zer esango zenieke?

Eskerrik asko! Pertsonekin lan egiterakoan denerik dago beti, baina beti pozik etorri naiz lanera. Gainera, bizitzako momentu latzak gainditzen lagundu dit. Ile-apaindegia nire bizitza izan da; bezeroak asko maite izan ditut, eta eurek ni ere bai.

**PABILIOIA
SALGAI**

lurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE



ELEXPE

ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateylexpe.com

